

# A2.1

## TURISTAK

### 1. ENTZUN AURRETIK

#### 1.1 *Nolako turista zara?*

Inkesta honen galdeei erantzun:

#### **Nola prestatzen dituzu zure oporrak?**

- Lekuari buruzko informazio asko lortzen dut.
- Leku hori bisitatu duen norbaitekin hitz egiten dut.
- Gida edo mapa bat erosten dut.
- Telefonorako aplikazioa jaisten dut.
- Inprobisatzen dut, ez zait gustatzen planifikatzea.

Besterik? Idatzi zer egiten duzun:\_\_\_\_\_

#### **Zer egiten duzu galtzen zarenean?**

- Udaltzain / poliziari galdetzen diot.
- Kanean galdetzen dut, ikusten dudana pertsonaren bati.
- Inor molestatu gabe konpontzen saiatzen naiz.

Besterik? Idatzi zer egiten duzun:\_\_\_\_\_

#### **Nola hartzen dituzu turistak zure herrian?**

- Turismo-bulegora edo udaltzainengana bidaltzen dut zuzenean.
- Lekua ondo ezagutzen badut, laguntzen saiatzen naiz.
- Ez diot kasurik egiten. Nazkatuta nago turistekin, nazkagarriak dira.

Besterik? Idatzi zer egiten duzu:\_\_\_\_\_

Komentatu erantzunak lagun batekin.

# ENTZUN BITARTEAN

## 2.1 Galderei erantzun

Entzun Josu eta Alexen arteko elkarrizketaren lehenengo zatia eta galderei erantzun.

1. Nork egingo ditu gaur erosketak?

- Josuk eta Amaiak
- Josuk eta Alexek
- Josuk bakarrik

2. Zer esan du Alexek?

- Ez zaiola batere gustatzen erosketak egitea
- Nahiago duela erosketak egin erratza pasatu baino.
- Karga handia eraman beharko dutela.

3. Zer jartzen du zerrendan eta nork prestatu du?

- Fruta eta barazkiak. Amaiak prestatu du zerrenda.
- Fruta eta gutuziak(caprichos). Junek prestatu du zerrenda.
- Barazkiak. Josuk berak prestatu du zerrenda.

## 2.2 Turista parea: aukeratu laburpena.

Entzun orain audioaren bigarren zatia eta aukeratu laburpenik egokiena.

- A. Bi neska gazte turista hurbildu zaizkie Josu eta Alexi, hondartza non den galdetzera. Mutilek azalpenak emango dizkiete, maparen laguntzaz, non dauden azalduz eta hondartzarako bidea erakutsiz.
- B. Alexek bi neska turista ikusi ditu mapa hartuta eta Josuri neskengana joateko esango dio. Kanpokoak dira eta kanpinean daude, baina hondartzarako bidean galdu egin dira. Hondartzaraino laguntzeko eskatuko diete mutilei.
- C. Bi neska turista galdu dira Josu eta Alexen herrian eta mutilak neskei laguntzen saiatuko dira, baina nesketako bati ez zaio gustatuko Alexek hondartzaraino lagundu nahi izatea. Azkenean, antzarak ferratzera bidaliko du.

# ERANTZUNAK

## 2.1 Galderei erantzun

Audioaren lehen zatia entzun ahala, galderei erantzun behar diete ikasleek.

Erantzunak.

1. Josuk eta Alexek.
2. Ez zaiola batere gustatzen erosketak egitea.
3. Fruta eta barazkiak. Amaiak prestatu du zerrenda.

## 2.2 Turista pareak aukeratu laburpena.

Erantzuna:

Laburpen zuzena C aukera da.

## TRANSKRIPZIOA

**Alex.**- Josu, ez dakit etxeko lanak ondo banatu ditugun, baina niri erosketak egitea ez zait batere gustatzen.

**Josu.**- Niri ere ez, baina nahiago dut hori, erratza pasatu eta komunak garbitu baino.

**Alex.**- Hortik begiratuta, arrazoi duzu. Baina autorik gabe, dendaz denda ibili beharko dugu.

**Josu.**- eta karga handia eraman, Bai, baina ez dago beste erremediorik.

**Alex.**- Ea lehenbailehen bukatzen dugun. Zer jartzen du zerrendan?

Josu.- Fruta eta barazkiak.

Alex.- Zerrenda Amaiak prestatuko zuen, seguru! Hara, begira bi neska horiei. Goazen!

## ETENA

*Alexek bi neska ikusi plano bati begira*

**Alex.-** Kaixo, laguntzarik behar duzue? Ez al zarete moldatzen maparekin?

**Neska 1.-** bai, hondartzara joan nahi dugu.

**Josu.-** Eta galdu egin zarete? Herri hau ez da ba Neww York! Kar-kar-kar!

**Alex.-** barkatu nire lagunari. Ez zarete hemengoak, ezta?

**Neska 2.-** Ez. Kanpinera etorri gara; oinez jaitsi gara herrira eta galdu.

**Josu.-** Lasai, Alex zuei laguntzeko prest dago eta!

**Alex.-** Nahikoa da, Josu! Ba urruti samar zaudete hondartzatik. Lagunduko dizuegu haraino?

**Neska 1.-** Ez da beharrezkoa. Nahikoa da nondik joan esatea.

**Josu.-** utziko didazu mapa, mesedez? Begira, orain hemen gaude; hau kultur etxea da, bai?

**Neska 2.-** Horko hori, ezta? Bai.

**Josu.-** Ba orain zuzen-zuzen joan behar duzue. Eta hemen ageri den parke hau ikusten duzuenean, jo ezazue eskuinera. Beste bi kale eta segituan iritsiko zarete hondartzara.

**Alex.-** Oso erraza da, ez dago galtzeko aukerarik.

**Neska 1.-** Mila esker, Einstein!

**Neska 2.-** Aitziber! Ai, barkatuko duzue, baina nire lagunari ez zaizkio neskazaleak gustatzen.

**Josu.-** Bueno, lasai, zoazte esandako bidetik eta kitto.

**Alex.-** Benetan ez duzue nahi laguntzea?

**Neska 1.-** Zoaz pikutara!

**Neska 2.-** Aizu, gorra zara, ala?

**Josu.-** Tira, Alex, goazen, erosketa asko egin behar dugu eta. Agur!

**Alex.-** Goazen, bai, hobe izango da.